

**Beste elkartasun erakustaldi bat koronabirusaren krisi betean**

**EROSKI-K INDAR HANDIAGOZ BABESTUKO DU HIRUKIDE, KRISIAREN ERAGINA PAIRATZEN ARI DIREN FAMILIA UGARIEI LAGUNTZEKO**

- Astelehenean 48 euroko deskontu txartelak banatuko dizkie Hirukidekoak diren 8.500 familiari; hala, sare komertzial osoan erabili ahalko dituzte EROSKI Cluben bitartez
- Familia ugariak asko ari dira pairatzen konfinamendu eta geldialdi sozial hau bai familian eta bai lan arloan ekarri dizkien ondorioengatik; gainera, ziurgabetasun handiak dituzte seme-alaben inguruan, etxeko baliabide ekonomikoak direla medio
- EROSKIk lankidetzaz hitzarmen bat du joan deneko hemeretzi urtean Hirukiderekin, Euskal Autonomia Erkidegoko familia ugarien kolektiboarekin

Elorrio, 2020ko apirilaren 17a.- [EROSKI](#)k deskontu txartelak banatuko dizkie [Hirukide](#) izena emanda dauden EAeko familia ugarietara. 48 euroko deskontua dakarte, eta erosketak egin ahalko dira hilabete hauetan sare komertzial osoan. Guztira, sei euroko zortzi deskontu-txartel emango zaizkie Hirukideko kolektiboan dauden 8.500 familiei.

Elkartasun kanpainaren helburua da COVID-19aren izurriak eragindako ondorio pertsonalak, familiarenak eta ekonomikoak arintzea. Familia ugariak asko ari dira pairatzen konfinamendu eta geldialdi sozial hau bai familian eta bai lan arloan ekarri dizkien ondorioengatik; gainera, ziurgabetasun handiak dituzte seme-alaben inguruan, etxeko baliabide ekonomikoak direla medio.

*"Gure laguntza behar duten familia ugariengandik gertu egon nahi dugu inoiz baino gehiago, eta erakutsi nolako konpromisoa duen EROSKIk gizartearekin eta kolektiborik zaugarriekin. EROSKIk deskontu txartela banatuko dizkie Arabako 1.393 familiari, Gipuzkoako 3.646 familiari eta Bizkaiko 3.461 familiari",* esan du Alejandro Martinez Berriochoak, EROSKIren Osasun eta Jasangarritasun arloko zuzendariak.

EAeko Familia Ugarien federazioak eskerrak eman dizkio kooperatibari une zail hauetan laguntzeagatik. *"EROSKIren deskontuen ekintza horri esker, zaugarritasun*

---

**EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)**EROSKI – PRENTSA BULEGOA****CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL

EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

*maila handian daudenei lagundu ahalko diegu une hauetan",* esan du Ignacio Maria de Guineak, Hirukideko presidenteak.

EROSKIren ekimen berri horretaz gain, kooperatibak ematen ditu lehendik ere bestelako abantaila batzuk Hirukideko familia ugarietzat. Bi entitateek hemertzi urtean izan duten lankidetzari esker, kolektibo horrek deskontu eskusiboak jasotzen ditu bere erosketetan. Gainera, besteren artean, ekitaldiak eta biltzarrak babesten laguntzen dio EROSKIk Hirukideri.

### **Hirukideri buruz**

Euskal Autonomia Erkidegoko Familia Ugarien Elkarten Federazioa da Hirukide. 1999an sortu zen Arabako (Hirukide Araba), Bizkaiko (Hirukide Bizkaia) eta Gipuzkoako (Hirukide Gipuzkoa) elkarten batasunetik; helburua da kolektibo horren eskubideak defendatzea arlo guztietan, politika, erakundeak, gizartea, hedabideak eta enpresak. Gaur egun, Gasteizen du egoitza Federazioak, eta 8.500 familia baino gehiago biltzen ditu (gutxi gorabehera 45.000 bazkide).

### **EROSKIri buruz**

Kooperatibaren helburuetariko bat da gizartea enpresaren jarduerarekin eraldatzea. Kontsumo kooperatiba den aldetik, proiektu kolektiboa da EROSKI, kontsumitzaileari eta gizarteari emana. Horregatik, lau eremutan lantzen du bere konpromiso soziala, eta eremu horiek erakusten dute zein den haren gizarte erantzukizuna: elikadura osasungarriaren sustapena, kontsumitzailearentzako informazioa, ingurumenaren iraunkortasuna eta elkartasuna.

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL

EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)